

FRANTZIAKO “DEL LOIRA” ESQUALDEAK GIPUZKOAKO ENPRESENGAN INTERESA ERAKUTSI DU

- *Gipuzkoako hornitzaileekin lan egiteko interesa erakutsi duten eraikuntza, ekipo-ondasuna, trenak, ingurugiroa, mediku teknologiak, ontzigintza eta energia sektoretako hogeita hamar enpresa frantziar baino gehiago identifikatu ditu Gipuzkoako Bazkunderak.*
- *Enpresa frantziar hauen interesa Nantesekeo (Frantzia) “Industrie Grand Ouest” Azpikontratazio Industrialeko ferian lortutako 50 negozio aukera baino gehiagotan islatzen da.*

Donostia – 2020ko otsailaren 17a

Gipuzkoako Bazkundera Nantesekeo (Frantzia) “Industrie Grand Ouest” Azpikontratazio Industrialeko ferian izan da urtarrilaren 28, 29 eta 30an. Feria hau 2020 urterako programatu diren nazioarteko ferien egutegian kokatzen da.

Feria honetan izandako parte hartzea oso positiboa izan da Gipuzkoako Bazkunderak lurraldeko hornitzaileekin lan egiteko interesa erakutsi duten eraikuntza, ekipo-ondasuna, trenak, ingurugiroa, mediku teknologiak, ontzigintza eta energia sektoreko 33 enpresa frantziar identifikatu dituelako. Frantziako enpresa hauek adierazi duten interes hori ferriako hiru egunetan lortutako 55 negozio aukeretan islatzen da, aukera hauek ondorengo lanetan gailendu dira: nekazaritzako industriarako altzairu herdoilgaitzako galdategi lanak eta makina euskarriak fabrikatzeko mekanizazio pieza motzak eta erdi mailakoak eta mekanosoldadura.

“Industrie Grand Ouest IGO 2020” ferriaren azken edizio honetan 350 erakusketari eta 8.000 bisitari bildu dira. Feria bi urtero egiten da Países del Loira eskualdeko Nantesekeo hirian. Eskualde honek 3,3 miloi biztanle ditu eta nekazaritzako elikagaien eta makineria eta ekipamendu egileen industrien konzentrazio handia duelako nabarmentzen da eta baita bertan konpainia handiak kokatuak daudelako ere, hala



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

nola, Les Cantiers Atlantique trasatlantikoen fabrikatzailea, AIRBUS, Manitou, Renault edo Michelin. Horrez gain, eskualde hau nautika eraikuntzaren lehen gunea dela nabarmendu behar da eta goratze eta mantenu sektorean mundu mailako liderra ere, eta kontutan izan behar da bertan azpikontratazioko industriako enpresa ugari kokatzen direla.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347